# Tejiendo sueños

# Ametsak ehuntzen

IN TEMPORE
ABESBATZA
[CORO&ENSEMBLE]

PAMPLONA - IRUÑA

Director / Zuzendaria
Carlos Etxeberria

## PROGRAMA

***Jende-hotsak*** (2019)
Carlos Etxeberria

***Song for Justice*** (movimiento VIII)
de la obra *Tuvayhun, Beatitudes for a Wounded World* (2018)
Kim André Arnesen

***I Call to You*** (movimiento II)
***The Shadow of the Boat*** (movimiento VIII)
de la obra *The Wound in the Water* (2016)
Kim André Arnesen

***The Bridge*** (movimiento III)
***Dominion*** (movimiento VI)
de la obra *Dreamweaver* (2014)
Ola Gjeilo

***Introit-Kyrie*** (movimiento I)
de la obra *Réquiem for de Living* (2013)
Dan Forrest

***Jubilate Deo*** (movimiento I)
de la obra *Jubilate Deo* (2016)
Dan Forrest

## EGITARAUA

***Jende-hotsak***(2019)
Carlos Etxeberria

***Song for Justice*** (VIII. mugimendua)
*Tuvayhun, Beatitudes for a Wounded World* (2018) obrakoa
Kim André Arnesen

***I Call to You*** (II. mugimendua)
***The Shadow of the Boat*** (VIII. mugimendua)
*The Wound in the Water* (2016) obrakoak
Kim André Arnesen

***The Bridge*** (III. mugimendua)
***Dominion*** (VI. mugimendua)
*Dreamweaver* (2014) obrakoak
Ola Gjeilo

***Introit-Kyrie*** (I. mugimendua)
*Réquiem for the Living* (2013) obrakoa
Dan Forrest

***Jubilate Deo*** (I. mugimendua)
*Jubilate Deo* (2016) obrakoa
Dan Forrest

## “TEJIENDO SUEÑOS – AMETSAK EHUNTZEN”

es el nombre del concierto que In Tempore Abesbatza, Coro & Ensemble interpertará acompañado de sexteto instrumental de cuerda y piano.

Música de vanguardia, accesible al gran público y de la que es buen reflejo la obra *Dreamweaver* de Ola Gjeilo, que sugiere y sintetiza el hilo de unión de este programa: los anhelos humanos. Una propuesta musical híbrida cuyos textos trasladan un intenso deseo de vivir, de justicia, de respeto mutuo y de liberación de los grandes males que aquejan a una sociedad altamente tecnificada e individualista.

Con este concierto el coro se propone continuar con su proyecto cultural en el ámbito de la música coral-orquestal contemporánea ofreciendo el trabajo de cuatro compositores vivos y actuales, de diferentes estilos, tendencias, formación y procedencia: los noruegos Kim André Arnesen (1980) y Ola Gjeilo (1978), el nortemericano Dan Forrest (1978) y Carlos Etxeberria (1961) director de In Tempore Abesbatza, Coro & Ensemble.

El programa se compone de una selección de movimientos de cinco obras completas y otra de corta duración, adaptadas al formato de sexteto instrumental.

## “TEJIENDO SUEÑOS – AMETSAK EHUNTZEN”

da In Tempore Abesbatzak Coro & Ensemblek soka eta piano seikote instrumentalarekin batera interpretatuko duen kontzertuaren izena.

Musika abangoardista ulergarria da gehienontzat, eta horren adibide da Ola Gjeilo egilearen *Dreamweaver* lana. Obra horrek ongi adierazten eta laburbiltzen du egitarau honi lotura ematen dion gaia: giza irrika. Eskaintza musikal honek era guztietako gaiak jorratzen ditu, besteak beste, bizitzeko grina, justizia, elkarrekiko errespetua eta gizarte indibidualista eta teknologizatu baten gaitzetatik ihes egiteko nahia.

Kontzertu honekin, abesbatzak koru- eta orkestra-musika garaikidearen alorreko proiektu kulturalari jarraipena eman nahi dio. Horregatik, estilo, tendentzia, formakuntza eta jatorri ezberdineko gaur egungo lau konpositore hauen lanak eskainiko ditu: Kim André Arnesen (1980) eta Ola Gjeilo (1978) norvegiarrak, Dan Forrest (1978) iparamerikarra eta Carlos Etxeberria, In Tempore Abesbatza, Coro & Ensembleko zuzendaria dena.

Programa hau mugimendu desberdinez dago osatuta, zehazki, bost obra osoz eta iraupen txikiko beste batez, eta horiek guztiak seikote musikalera daude egokituta.



CARLOS
ETXEBERRIA
ALONSO
(Tafalla ,Navarra, 1961):

Músico, profesor, director del Conservatorio Profesional de Música Pablo Sarasate de Pamplona y director de In Tempore Abesbatza, Coro & Ensemble. Su obra, principalmente de Cámara, ha sido interpretada por toda la geografía nacional así como en varios países europeos (Antigua Yugoslavia, Holanda, Bélgica, Israel, Francia, etc.), en Radio Clásica de RNE, en TVE, Festival Internacional de Música Contemporánea de Alicante o Quincena Musical de San Sebastián. Ha recibido numerosos premios y encargos.

https://carlosetxebe.wordpress.com

CARLOS
ETXEBERRIA
ALONSO
(Tafalla, Nafarroa, 1961):

Musikari hau irakaslea eta zuzendaria da bai Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio profesionalean, baita In Tempore Abesbatza, Coro & Ensemblen ere. Gehienbat, ganbera-musika idatzi du, estatu mailan eta Europako zenbait herrialdetan interpretatua izan dena, hala nola, Jugoslavia ohian, Holandan, Belgikan, Israelen eta Frantzian. RNEren *Radio Clásica*n, TVEn, Alacanteko Musika Garaikidearen Nazioarteko Festibalean edota Donostiako Musika Hamabostaldian ere entzun ahal izan dira musikari honen obrak. Gainera, sari eta enkargu ugari jaso ditu.

Argibide gehiago, hemen:
https://carlosetxebe.wordpress.com



KIM
ANDRÉ
ARNESEN
(Noruega, 1980).

Es una estrella emergente en la composición coral contemporánea y conocido, sobre todo, por sus composiciones corales tanto a capella, piano u órgano como grandes obras de coro y orquesta. En 2010 estrenó su primera obra a gran escala, *Magnificat*, y desde entonces no ha dejado de componer. *The Wound in the Water* (2016) y *Tuvahun, Beatitudes for a Wounded World* (2018) reflexionan sobre el pasado de la humanidad y miran al futuro con esperanza y compromiso. "En un mundo de conflicto y preocupaciones –dice el autor- tuve la necesidad de escribir algo pacífico y edificante".
https://www.kimarnesen.com/

KIM
ANDRÉ
ARNESEN
(Norvegia, 1980).

Koru-musika garaikidean sortu berri den izarra da. Ezaguna da, batik bat, *a capella* nahiz pianoak edo organoak lagunduta interpretatzeko sortu dituen koru eta orkestrako obra handiengatik. 2010ean kaleratu zuen haren lehenengo lan handia, *Magnificat* izenekoa, eta geroztik ez dio musika sortzeari utzi. *The Wound in the Water* (2016) eta *Tuvahun, Beatitudes for a Wounded World* (2018) obrek gizartearen iraganaren inguruan hausnartzen dute, eta etorkizunari itxaropenaz eta konpromisoz begiratzen diote. Hala dio autoreak: «Arazoz eta kezkaz betetako mundu baten aurrean, zerbait baketsua eta eredugarria idazteko beharra izan nuen».
Argibide gehiago, hemen:
https://www.kimarnesen.com



OLA
GJEILO
(Noruega, 1978).

Es un pianista y compositor que en los últimos años se ha posicionado en lo más alto de los compositores contemporáneos de música clásica. El texto de *Dreamweaver* está sacado de una balada popular medieval de Noruega traducida al inglés por Charles Anthony Silvestri. El movimiento *Bridge,* construido sobre una nota de bajo repetida rítmicamente, evoca a un héroe de película involucrado en una lucha desesperada por salvar el mundo. Música etérea, mística, envolvente, contemplativa y cinematográfica.
http://olagjeilo.com/

OLA
GJEILO
(Norvegia, 1978).

Azken urteetan, musika klasikoa sortzen duten musikagileen artean mailarik gorenean kokatu den piano-jotzaile eta konpositorea da. *Dreamweaver* obrako testua Charles Anthony Silvestrik ingelesera itzulitako Erdi Aroko balada herrikoi norvegiar batean dago oinarrituta. *The Bridge* izeneko mugimenduaren oinarria baxu batek etengabe errepikatzen duen nota erritmiko bat da, eta mundua salbatzen saiatzen den heroi bati buruzko film bat ekartzen digu gogora. Musika etereo, mistiko eta zinematografikoa da obran murgilaraziko gaituena.
Argibide gehiago, hemen: http://olagjeilo.com/



DAN
FORREST
(Elmira, New York, 1978).

Compositor, pianista, editor y educador, ha sido reconocido por la crítica especializada como un magnífico escultor del sonido. *Réquiem for the Living* (2013) y *Jubilate Deo* (2016) se han convertido en el repertorio coral-orquestal standard de agrupaciones corales de todo el mundo, obteniendo numerosos premios y distinciones. Sus trabajos corales destacan por la sensibilidad en los matices, ritmos discursivos y el profundo significado de sus textos contra el dolor, la tristeza y a favor de la vida.

http://danforrest.com/

DAN
FORREST
(Elmira, New York, 1978).

Musikagilea, piano-jotzailea, editorea eta hezitzailea da, kritikoek soinuaren eskultore bikaintzat deskribatu dutena. Haren obra nagusiak, hau da, *Requiem for the Living* (2013) eta *Jubilate Deo* (2016), mundu osoko talde askorentzat koru- eta orkestra-errepertorio estandar bihurtu dira. Horregatik, sari asko eskuratu ditu. Bere koru-lanak ñabardura sentikor eta erritmo diskurtsiboengatik nabarmentzen dira, baita minaren eta atsekabearen aurkako zein bizitzaren aldeko testuengatik ere.

Argibide gehiago, hemen: http://danforrest.com/



Es la nueva marca registrada con la que se presenta la Coral San José Abesbatza desde 2016. El coro, creado en 1955, tiene un amplio currículum plagado de conciertos por toda Navarra y parte de la geografía nacional y participa habitualmente de los ciclos de música organizados por el Ayuntamiento de Pamplona y el Gobierno de Navarra. En el extranjero descatan sus conciertos en el sur de Francia y recientemente en el Carnegie Hall de New York (15-1-2017), en el Mercedes Benz Arena de Berlin (2-11-2018), en ambos casos interpretando obras de Karl Jenkins junto con otros coros de todo el mundo. El 30-5-2020 participará en el estreno en el Reino Unido de la obra *Tuvayhun, Beatitudes for a Wounded World* de Kim André Andersen con un concierto en el Cadogan Hall de Londres.

A partir de la irrupción de Carlos Etxeberria en la dirección del coro, su actividad se ha enfocado en la interpretación de obras de autores contemporáneos acompañadas por conjunto instrumental.

http://corointemporeabesbatza.com

## CORO IN TEMPORE ABESBATZA

Coral San José Abesbatzak 2016an erregistratutako marka berria da. 1955ean sortutako abesbatza honek curriculum luzea du. Nafarroan egindako emanaldiez gain, estatu mailan ere hainbat lekutan abesten aritu da. Iruñeko Udalak zein Nafarroako Gobernuak antolatzen dituzten musika zikloetan parte hartu ohi du abesbatzak. Horretaz gain, azpimarratzekoak dira Frantziako hegoaldean emandako kontzertuak, 2017ko urtarrilean New Yorkeko Carnegie Hall-ekoa eta 2018ko azaroan Berlineko Mercedes Benz Arena aretoan emandakoa. Azkeneko bi horietan Karl Jenkinsen obrak interpretatu zituen munduko beste hainbat abesbatzekin. 2020ko maiatzaren 30ean Kim André Andersen autorearen *Tuvayhun, Beatitudes for a Wounded World* obraren estrinaldian hartuko du parte abesbatzak, eta Londreseko Cadogan Hallean egingo du emanaldia, Erresuma Batuan.

Carlos Etxeberriak abesbatzako zuzendaritza hartu zuenetik, konpositore garaikideen obrak talde instrumentalarekin batera abesten espezializatzen ari da.

Argibide gehiago, hemen:
http://corointemporeabesbatza.com

EL DIRECTOR:



CARLOS ETXEBERRIA ALONSO.

Profesor desde 1991 de Armonía y Melodía Acompañada en el Conservatorio Profesional de Música "Pablo Sarasate" de Pamplona, centro del que es director desde 2016, compagina la docencia con la composición musical y la dirección de coros y orquestas. Ha dirigido a la Joven Orquesta Pablo Sarasate en tres giras internacionales (Gran Bretaña, Suecia y Polonia), y a la Orquesta Amalur. Fundó la Coral Tubala Uxoa Abesbatza y en 2004 funda y dirige el Coro Lírico de Navarra hasta su desaparición en 2009. A partir de 2002 se hace cargo de la dirección de la Coral San José Abesbatza, hoy Coro In Tempore Abesbatza y su conjunto instrumental.

Como compositor, su obra –principalmente de cámara- ha sido interpretada en varios países europeos y festivales internacionales de música. Ha recibido numerosos premios y encargos destacando los realizados por el Ayuntamiento de Pamplona y la Quincena Musical de San Sebastián.
https://carlosetxebe.wordpress.com/

ZUZENDARIA:

CARLOS ETXEBERRIA ALONSO.

1991. urteaz geroztik, harmoniako eta melodia lagunduko irakaslea da Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean, eta 2016az geroztik, Kontserbatorioko zuzendaria. Irakasle, konpositore eta abesbatza- zein orkestra-zuzendari lanetan ari da aldi berean. Pablo Sarasate Orkestra Gazteko zuzendari gisa aritu zen nazioarteko hiru biratan (Britainia Handia, Suedia eta Polonia), eta Amalur Orkestrako zuzendari ere jardun du. Tubala Uxoa abesbatza sortu zuen, eta 2004an Nafarroako Abesbatza Lirikoa sortu eta zuzendu zuen, 2009an abesbatza desagertu zen arte. 2002az geroztik, Coral San José Abesbatza/Coro In Tempore Abesbatzaren eta haren talde-instrumentalaren zuzendaritza hartu zuen bere kargu.

Konpositore gisa, ganbera-musika idatzi du batik bat, eta bere obra Europako zenbait herrialdetan eta nazioarteko hainbat musika-jaialditan interpretatu dute. Sari eta enkargu ugari jaso ditu, eta horien artean nabarmentzekoa da Iruñeko Udalak eta Donostiako Hamabostaldi Musikalak emandakoak. Argibide gehiago, hemen:
https://carlosetxebe.wordpress.com



## CONJUNTO INSTRUMENTAL:

acompaña a la coral adoptando distintos formatos dependiendo del programa a interpretar: orquesta de cámara y/o sexteto/septeto instrumental.

Sus miembros son intérpretes cualificados muy activos en numerosos grupos y orquestas. También lo forman profesores de música y alumnos sobresalientes del Conservatorio Profesional de Música Pablo Sarasate de Pamplona, del Conservatorio Superior de Música de Navarra y de Musikene de San Sebastián.

## TALDE INSTRUMENTALA.

Abesbatzarekin a mbatera jotzen du, eta formatu desberdinetara egokitzen da interpretatutako programaren arabera: ganbara-orkestra edota seikote/zazpikote instrumentala.

Musikariak hainbat talde eta orkestratan jotzen duten interprete gaitu eta aktiboak dira. Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko eta Donostiako Musikeneko musika irakasleak etaila altuko ikasleak ere dira talde honetako kide.



IN TEMPORE
ABESBATZA
[CORO & ENSEMBLE]

www.corointemporeabesbatza.com

https://www.youtube.com/channel/UCKuhagUWEHCh5rqNKRYTArA

https://www.facebook.com/coro.intempore.abesbatza/

https://twitter.com/CoroInTempore

intemporeabesbatza@gmail.com

mecna

Pamplona/Iruña